

# Nafarkaria

• ostirala • 1999ko martxoaren 12a

**Egunkaria**

Gehigarri honetan

**Intza** • Malloak erortzen ari ote?

**Jose Antonio Gabilondo** • «Jarraipen naturala bete besterik ez genuen egin».

## Euskaldun elebakarren testigantzak



• MIKEL SAIZ

Euskaldun elebakarrak gero eta gutxiago dira Nafarroan, 1991n Euskal Herrian egindako lehen soziolinguistika ikerketaren arabera, Nafarroa Beherekoak barne, 3.200 lagun ziren, biztanleriaren %1, hain zuzen. Lau urte beranduago egindako azken azterketan, kopurua 1.100 lagunera jaitsi zen. Hala, %1 izatetik %0,2 izatera iragan dira. Erdara nagusi den gizartean, batzuetan eroso eta bestetan etsita bizi dira euskaldun elebakarrok.

Intza ●

# Malloak erortzen ari ote?

Joan den asteko lur-jausiak beldurra eragin du herritarren artean

**Azken egunetako gertakizunek araztarren ahotara ekarri dute duela laurehun urte gertatutako lur-jausi ikaragarria. Lehengo asteko lur-jausiaren ondoren, oraindik ere handiagoak etorriko ote diren beldur dira Intzakoak.**



Araizko ibarreko Intza herrian kezkatuak daude azken boladan gertatu lur jausiekin.

● URKO ARISTI

**E**GUN HAUETAN, LUZIETARA begira daude intzatar gehienak. Intzatarrek diotenez, duela bi aste hots arrarok entzuten hasi ziren. Malloetatik zetozten zarata haiek. Hasieran susmoa baino ez zena lehengo astean egiaztatu egin zen, luizia gertatu baitzen herritik kilometro batera edo. Bat edo batek, gertakizunarekin beldurtuta, Nafarroako Gobernuari eman zion haren berri.

Ingurugiro Saileko geologoak kasua ikertzen hasi ziren orduan. Geologoek lehendik ere bazuten Intzako mendien ezaugarrien berri. Hala ere, Gobernuak garrantzia kendu nahi izan diote gertatutakoari. Berritro esnatu den desplazamendu fosil bati buruz ari omen gara. Aldapa nahiko

mugikorra omen da, berez, baina bere ahultasuna areagotzen dute, nonbait, euriak eta horrek eragindako ur putzuek. Malkorrek ezin izaten diote hainbesteko indarrari eutsi, eta ur horrek bultzatuta, goitik behera erortzeko arriskua izaten dute. Herritik urrun gertatutako lur-jausi txiki bat baino ez omen da, eta, ondorioz, herritarrek ez dute inongo arriskurik. Onartu, ordea, onartzen dute oraindik zarata batzuk entzun daitezkeela. Zarata hori, joan den astean eroritako lur-raren mugimenduak sortzen omen du.

**Badira aurrekariak**

Nafarroako Gobernuak lehendik ere ikertu behar izan

ditu Malloak. Tarteta-tarteka luizi txikiak izan badira ere, azpimarragarria da duela 30 urte, 1966an, gertatutakoa. Apirilaren 11n, goizaldeko 04:45etan, mendi aldetik zertorren zalaparta entzun zuten, eta berehala esnatu ziren intzatarrek. Maikosasi izeneko alderditik bi harri puska erori ziren. Etxe baten tamainakoak omen ziren. Baina, zorionez, Malloen behealdean dagoen zulo handi batera erori ziren, eta ez zuten bestelako kalterik eragin.

Askoz larriagoa izan zen, ordea, 1714an gertatutakoa. Orduan, Intza ez zen gaur ezagutzen dugun bezalakoa. Urte hartako abenduan, zortizarrez, herriaren erdia suntsitu eta lurperatu zuen izu-

garrizko lur-jausia gertatu zen. Izan zituen ondorioak ikusita, lurrikaratzat hartu zuten, orduan, baina ez zen horrelakorik izan. Malloetako malda handi bat poliki-poliki mugitzen hasi, eta lau hilabeteetan hamabi baserri, apezetxea, eliza eta udaletxea irentsi zituen. Familia bakoitzak baserriko altzari, tresna eta abereakahalik eta azkarren eta elkarri lagunduz ateratzeari ekin zioten. Datu teknikoari dagokienez, Aitzausitako gailurretik hasitako lur eta harkaitz-jausi haren ondorioz, mendiaren 526 mila metro kubiko erori zitzaizkien gainera intzatarrei, lurra 1.400 metrotan mugituta.

→ Urko Aristi

Etxarri-Aranatz

●  
Korrika kulturalaren ekitaldiak aurrera doaz


KORRIKA KULTURALAREN ekitaldiek aurrera jarraitzen dute Etxarrin. Igan-de honetan izanen dute jarraipena. Igan-dean izanen dira partiduak, eguerdiko 12:00etatik aurrera, herriko pilotalekuan. Bertañ lau partidu jokatuko dira: zortzi urtekoak: Ansotegi-Murgiondo Ijorra eta Erdoziaren aurka, eta hamar urtekoak, Agirre-Igoa Lopez eta Karasatorrerren aurka. Hamabost urtetan berriz Garziandia eta Urrestarazu ariko dira eta helduetan Lasa-Mundiñano eta Arruti eta Floren.

Pilota partiduez gain, Kultur Etxean Bertsolari Txapelketaren bigarren finalerdia ospatuko da 16:00etan. Bertsotan ariko dira: Manolo Aroza, Bittor Elizagoien, Xabier Legarreta, Xabier Silveira, Josema Leitza eta Nerea Bruño. Dena den, bi ekitaldi hauek ez dira bakarrik. Hain zuzen ere, korrika kulturala matxoaren 18an, 20an eta 21ean egingo diren ekitaldiekin bukatuko da herrian. Horrela, martxoaren 18an Eneka Maiz eta Iñaki Mundiñano etxarriarren *Etxarrietatik sakanerara* liburua aurkeztuko dute Kultur Etxean, 20:00etan.

→ Amaia Mundiñano

denbora pasa

XAMAR



**K**osta zaie baina lortu egin dute. Konbentzitu naute guziz. Nituen duda guziak txikitu dituzte. Hain bistan zegoena ezin ikusi nuen. Gezurra dirudi lehenago ez goartu izana. Bada aspaldidanik ari zaizkigu Españolez xakitearen abantiaiaz, munduan ibiltzeko edota literaturarik hoberenatariko bat bame-bametik ezagutzeko. Hau suertea Españolez xakitearena... zemahe liburu leitzen ahal dut, luma handien idatz moldeak aztertu, ele jokuak dastatu, sintaxi zoragarria gozatu, adierazpen ziragarriak miretsi, hiztegi zabala ikasi... funtsean badugu idazleen arimaraino sartzeko biderik zuzenena.

## Quijotekeriak

Gauza da, hegoaldeko euskaldun guziei «eman» dauguten opari hau izanik... zendako itzultzen dute *El capitán Alariste* Euskarara? Edo Españolez eskribitutako gaineratikoak? Orain prest nintzela nere xakituriaz baliatzeko jatorrizko obrak leitzen... Zaude! Iparraldeko euskaldunei zuzendutako izanen dira! Bai segurki!

Garbi dudana da Españoldun elebazarrek leitzen ez dutena, *Don Quijote* famatua dela. Semea Latinari zaletua duen bidaiari batek bere arazoa azaltzen dakolarik, hala mintzo zaio Quijote:

«Y a lo que decís, señor, que vuestro hijo no estima mucho la poesía de romance, doyme a

entender que no anda muy acertado en ello, y la razón es ésta: el grande Homero no escribió en latín porque era griego, ni Virgilio no escribió en griego porque era latino. En resolución, todos los poetas antiguos escribieron en la lengua que mamaron en la leche, y no fueron a buscar las extranjeras para declarar la alteza de sus conceptos. Y siendo esto así, razón sería se estendiese esta costumbre por todas las naciones, y que no se desestimase el poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, ni aun el vizcaino, que escribe en la suya.» (Bigarren parte, XVI Kap.)

Iparraldeko lagunendako itzulpen laburtua: nor bere mintzoa, bai eta euskaldunak ere.

urdairen  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Jim Thompson

Gaur serio demonio ariko naiz. 2.000 karaktere ditut Thompson idazleaz zer edo zer idazteko. Dena den, gauza haundirik ez dakit, bere bizitza eta obrari buruzko libururik ez baitut aurkitu. Estatubatuarra. 1906an jaio eta 1977ko apirilean hil zen. Bene-benetako idazle haundia izan zen. Bene-benetako idazle haundia. Bene-benetakoa. Benetakoa. Idazten hasi baino lehen, funtzionario publikoa ezik, mota guztietako lanak egin zituen. Hortik dator kio seguruenik bere eleberrietan agertzen diren gizarte eta gizakien deskribapen zehatzak. Hortik, seguruenik, bere begirada guztiz pertsonala. Guztiz pertsonala. Guztiz. Ilunpean idatzi eta, nire ustez, ilunpean segitzen du. Eleberri beltzean kokatu eta mugatzen dituzte bere lanak, generoen mugen txepelkeria, berriz ere, agerian utziz. Literatura genero estankoeetan banatzearena txotxolada eta pitokeria dela? Bai. Muga horiek gaintuz zergatik ukatu behar zaie lan hauei, esate baterako, olerkigintza?, edo psikologikoa? Genero batean biltzearen Kalitatezko Literaturaren Generoan kokatuko nuke nik. Eta, generoen arbuia-pen honekin, katedratiko ponposo eta kazetari kultural melindrosoen lanak, entseguak, estadistikak, eragotziko balira... hobe. Barkatu, nire onetik atera naiz, serio demonio jarraituko dut: NUPeko liburutegian tipo honen liburu bakar bat dago. 1280 arima. Euskaraz. Olarrak itzulia. Txaloak gure unibertsitateari. Liburudendetan ez da existitzen, Auzolanen salbu. Liburutegi nagusian bost edo sei daude. Merezki du, benetan. Bere eleberriekin filmak egin dira: *Ihesa eta iruzurgileak* esate baterako. Beste batzuetan gidolari bezela aritu zen. Horrelakoetan bere izena ez da aipatzen eta beste batzuek lortzen dute ospea eta haunditasuna: Adibidez *The killing* filmean, edo *Paths of glory* lehen gerrate mundialean kokatutako filmeetan. Azken bi hauek Stanley Kubrick izeneko batek zuzendu zituen.

# Iruñea • Jose Luis Garai txistularia hil da

Haren omenez meza izanen da bihar 18:45etan.

**Joan den ostiralean zendu zen Jose Luis Garai txistulari iruindar bikaina. Udaleko lehen txistulari taldeko kide izan zen Garai, eta dantza taldearekin ere ibili zen hainbat tokitan.**



Jose Luis Garai txistularia, 1997ko ekainean.

• ARTXIBOKOA

**J**OSE LUIS GARAI TXISTULARI iruindarra hil zen joan den ostiralean, otsailaren 12, 64 urte zituela. Bere anaia Santiagok gogoratu duen bezala, txistua jotzen maisua izan zen. Txistulariak aita izan zuen irakasle, Polikarpo Garai, Iruñeko Txistulari Bandako sortzailea eta lehen zuzendaria. Aitak segituan antzeman zion txisturako zuen trebetasuna eta bertutea. Jose Luis oso gazterik hasi zen jotzen Iruñeko Udaleko taldean, Udaleko dantzarien laguntzaile ere izan zen taldeak egiten zituen emanaldietan eta bidaietan. Bere bertuteak erakusteko aukera izan zuen Bilboko Arenalean

1957ko abuztuan egin zen Euskal Herriko txistulari topaketa batzuetan. Orduan garaiko txistulari hoberenekin jotzeko aukera izan zuen: Ansorena, Onraitarekin...

Urte askoan jo zuen Miarrizko Oldarra dantza taldean, eta Antonioren Espainiako baletean ere aritu zen. Oso maite zuen euskal kultura.

### Gizon ona

Nonalahi ere, artista handiaren atzean, gizon on bat zegoen. Ezagutu zutenek diote be-

ti prest zegoela edozein ekitalditan jotzeko: hiletetan, Iruñeko espetxera joaten zen, Lourdesera gaixoekin eta Aralarko San Migelen Kofradiako kide ere bazen. Dena den, urtero kofrade kideek Aralarren Inocencio Aierbe bertako apaizak deituta egiten duten bazkarira ez da gehiago joan. Haren anaia Santiagok lan on asko egin zituela oroitu du eta Xabier Irigarai apaizak ere iritzi bera du.

→ Uxue Zabaleta

Lizarra

•  
Maria de Maeztu  
literatur saria  
abian

LIZARRAKO EMAKUMEEN Asanbladak Maria de Maeztu literatur lehiaketaren III. edizioa aurkeztu berri du. Bere sorreran zehaztu zen bezala, literatur sari honen xedea emakumeen sormena piztea da. Izan ere, emakumezkoak baino ezin dira aurkeztu lehiaketara. Bertzetik, Maria de Maeztu izan zenaren izena aldarrikatzea eta ezagutzera ematea du helburu ere deialdiak. Gustavo de Maeztu margolari famatuaren arreba izan zena, emakume borrokatzaile eta langile sutsua izan zen. De Maeztu (1881-1948) irakaslea, idazlea eta pedagogoa izan zen, bertzeak bertze. Irakasletza ikasketak Bilbon hasi zituen, eta gerora Madril eta Europako beste hiruburu batzuetan zein Ameriketara egin zituen. «Emakumearen egoera hobetzea helburu zuten hainbat ekintza bultzatu zituen, eta horregatik aldarrikatu nahi dugu emakume honen lana.

Aurkezten diren lanak euskaraz zein gaztelaniaz idatzita egon daitezke. Gehienez hamar orriz osatua egonen da, eta gaia libre da. Lanak uztailearen 31 baino lehen aurkeztuko dira Lizarrako Fray Diego Kultur Etxean.

→ Kristina Berasain



## herri aldizkariak

Edume Elizondo

## Emakumeak lanean

Hainbat emakume langileren inguruan osatu du **Guaixeko** azken zenbakiak bere erreportai nagusia; Amaia Amilibia kazetariak egina da, eta Nerea Villarroel soldatzailearen, Izaskun Carrasco zurginaren eta Pilar Maldonado txapistaren berri dakar. Nerea Villarroelek 20 urte ditu eta etxarriarra da, eta INEMek antolatutako soldagintza ikastaroa egiten ari da: «INEMera joan nintzenez Sakanan soldatzaileak behar direla esan zidaten. Horrela animatu nintzen. Emakumeak lanpostu berri horietan sartu beharrean gizonetzko asko ari da kanpotik etortzen. Sakanan ez bezala, Goierrin emakume

andana ari da soldatzaile. Emakumea izateagatik ez nuke nahi lan egitera Goierriraino joan behar izatea», dio etxarriarrak.

Izaskun Carrascok aspaldi erabaki zuen zurgintza ikastea. Ikasketak amaituta, lan kontratua lortzeko orduan izan zituen Carrascok arazoak: «Auzo zurgindegian urtebetez praktikak egin nituen, baina urtea bukatutakoan ez ninduten lanerako hartu. Zurgindegitara curriculumak eramaten ibili nintzen baina harrera txarra izan nuen emakumea izateagatik. Ekainean Txokozar taberna hartu nuen lagun bate-

kin, baina nire ilusioa zurgin izatea da».

Pilar Maldonado 23 urteko altsasuarren berri ematen du **Guaixek**, azkenik. Aurki urtebete eginen du Europark Alava enpresan, txapista lanean: «Hasieran arazo bat baino gehiago izan nuen tailerra bilatzeko: lehenengo saikeran emakumea izateagatik ez nindutela hartu jakin nuen. Geroago tailer handi batean hartu ninduten. Nik zorte handia izan dut. Gaur lanean nagoen enpresan zera esan zidaten: hasiera batean ez zutela emakumerik nahi. Frogaldian egon eta gero kontratua luzatu zidaten».

# Euskaldun elebakaren testigantzak

Erdara nagusi den gizartean, batzuetan eroso bestetan etsita bizi dira

**Euskaldun elebakarrak gero eta gutxiago dira Nafarroan, 1991n Euskal Herrian egindako lehen soziolinguistika ikerketaren arabera, Nafarroa Beherekoak barne, 3.200 lagun ziren, biztanleriaren %1, hain zuzen. Lau urte beranduago egindako azken azterketan, kopurua 1.100 lagunera jaitsi zen. Hala, %1 izatetik %0,2 izatera iragan dira. Erdara nagusi den gizartean, batzuetan eroso eta bestetan etsita bizi dira euskaldun elebakarrok.**

**E**RDARA NAGUSI DEN GIZARTEAN BIZI DIRA euskaldun elebakarrak. XXI. mendean atarian, elebitasuna eta maiz cleaniztasuna nagusitzen ari den honetan, euskal elebakarrak desagertzen doaz, euskaldunek izan duten ohiko nekazari bizimodua desagertzen doan heinean. Nafarroako iparmendebaldeko herrietan bizi dira, errepede nagusietatik urrun, eta 64 urtez goikoak dira gehienak. Horren lekuko dira Arantzan eta Leitza hartu ditugun testigantzak.

► **Josefa Madariaga, Arantzako Andreenea baserri etxeko andrea: «Niri nire denboran erdarak egin dit falta handiena»**

Josefa Madariagak 73 urte ditu. Bortziritako Arantza herriko Eguzkialdea auzoan jaioa, ezkondu zenetik Bordalarrea auzoan bizi da Rufino Etxeberria senarrarekin, herri gunetik nahiko urrun dagoen paraje malurtsu batean; hala ere, lantzin eta Etxalarraren dituen alabak maiz etortzen zaizkio. Auzoan badira beste 22 baserri eta gehienak beteak daude.

Josefinak ez daki gaztelaniaz, edo erdaraz, berak esaten duen moduan. «Baserriatik bizituak eta kalamidade handiak ikusiak, txarrak denak harrapatuak. Arantzan jato eta Arantzan hirugarren baserria dut hau. Simonebordan jaioa, gero Zerraldoaldera baserriera pasea eta hemen, Andresenean 39 urte ditugu inora atera gabe», gogoratu du.

Sei seme-alaba ziren baserri txikian, eta lana besterik ez omen zegoen eurentzako. «Baserria nahiko txikia eta lanean ibiltzen ginen auzoz auzo: artoa jorrazten, ilar biltzen, iratzea ebakitzen, gaztaina biltzen baserri baserri, leher eginak», gehitu du.

«Gaztetan ez nintzen inora ateratzen. Nire senideak joaten ziren kanpora eta ni beti



etxean. Noizbait ere nire txanda allegatu zen. Batek bazuela neskato tokia hagitz ona Erreterian eta joan nahi nuen. Aitak etxean ere norbait behar zela eta etxean gelditu nintzen. Geroztik, beti hemen. Baserriko lana eta azienda...», dio etsirik.

Eskolara joateko betarik gabe eta beti baserriko lanetan, Josefak ez du gaztelania ikasi. Inguruan ibiltzeko premiarik sumatu ez duen arren, erdara ez jakiteak asko mugatu duela uste du. Batez ere, semeari hamazazpi urterekin diabetea harrapatu ziotenean.

«Eritasunarekin joan erresidentziara eta hitz bat ezin egin, eta inork euskaraz hitz bat ez egiten. Mutilarekin hamazazpi egun eta hamazazpi gau egin nituen Donostiako erresidentzian, eta bakar bat euskaraz egiten zuenikan ez nuen harrapatzen. Gaur euskararekin badituzte kontuak, eta niri nire denboran erdarak egin dit falta handiena. Etxe-

tik ezin atera. Iantzik Bentan pasatu gabe bizi behar. Hori baino murriztasun handiagorik zer nahi duzu». Herrikan kanpora atera izan denean beti euskaldunak ikusteko desiotan egon da. «Inora atera eta dena erdalduna. Beti beldurka, ezin zenuen solasikan egin eta». Egun, ez du hainbesteko falta sumatzen; «besteak ni bezala dauka falta», dio irribarretsu. Medikura joan behar duenean alabarekin egiten du joan-etorria. Euskal Telebista eta Tipi-tpata telebista ikusten eta irratia entzuten edota baratzean lanean iragotzen du denbora.

► **Ana Etxeberria, Arantzako Gaiko Borda baserriko etxeko andrea: «Aisa moldatzen gara erdararik gabe»**

Ana Etxeberria sunbildarrak 74 urte ditu eta 53 daramatza Arantzan Lorenzo Telletxearekin ezkondua Gaiko Borda baserrian.

Josefina Madariagaren auzokidea da eta hark bezala eskolan gutxi ibilia da. Lana eta beharra besterik ez du ikusi Anak. «Erdaraz gaizki moldatzen gara. Ez dugu behin ere ikasi. Eskolan gutti ibili ginen, Dena lana izaten zen eta tenporada txarra tokatu zitzaigun bizitzea», gogoratu du.

Herrira joaten da mandatuak egitera. Eskursionetan ere puxka bat ibiltzen omen da eta ez omen du gaztelaniaren faltik sumatzen. «Aisa moldatzen gara erdararik gabe. Kuadrilan ibiltzen gara kanpoan eta ez dut hainbestekan faltan sumatzen».

Medikutan alabarekin moldatzen omen da bai Irunera zein Donostira egiten dituen bisitetan. «Erdaraz jakin ez arren, hagitz ongi hartu izan gaituzte beti», gaineratu du. Gaurko gazteen euskara bestelakoa dela dioen arren, euskarak aurrera egingen duela uste du. «Euskara bizitzea posible da gero



eta jende gehiago egiten du eta ongi iruditzen zait bakoitzak bere kostunbreari eustea. Haien euskara aisa ententitzen dut, gainera», bukatu du.

► **Rafael Barriola, Leitzaoko Pastain baserriko seme: «Hemendik aurrera erdara zertarako dugu guk?»**

Rafael Barriola Leitzaoko Arkiskil auzoan dagoen Pastain baserrian bizi da eta 67 urte ditu. Bete baserrian bizi izan da. Dena den, mendian lanean ibilia da, hamahiru urte, bat Frantzian eta besteak Leitzaoko zaldiarekin. Gero herriko paper lantegian beste hiru eman zituen, eta orain etxean dago erretiroa hartuta. «Kanpora lanera atera nintzenean ezin hitzik esan eta ahal nuen bezala moldatzen nintzen. Nolabait ere pasatzen nintzen, tartean euskaldun bat edo beste erdaz zeki-

tenak izaten nituen inguruan, eta haiekin mane-jatzen nintzen ala edo nola», dio. Garai batean gaztelaniaz eginarazten omen zieten eskolan eta horregatik ez zen joaten. «Erdaraz eginarazten ziguten eskolan eta horregatik ez nintzen joaten. Eskolara bidali eta eskola piper egiten nuen makina bat eguten. Aitak eskolan nintzela uste baino ez nintzen joaten eta horregatik ez nuen ikasi eskolik. Ni nintzela medto», gaineratu du pentsakor. Ingurunea euskalduna izateak asko lagundu dio Rafaeli, lanean ibili den toki guztietan euskaldunen bat bazuelako. Medikutera anaiarekin joaten da hark gaztelaniaz bada-kielako. «Bestela

ez naiz inora ateratzen, herrira bai baino gainerakoan ez naiz inora ateratzen. Mezara igandero eta herriko festetan. Lehenago juer-ga latzak eginak gara gu», dio farrez.

Bera bezalako franko badagela inguruan dio eta euskalduna denez euskaraz hitz egitea gustatzen zaila azpimarratu du. «Erdaraz behartzen naizenean ez dut faltan sumatzen. ezta Ez dut inolako beharrik. Hemendik aurrera erdara zertarako dugu guk?», bukatu du.

► **Joxe Joakin Arribilaga, Leitzaoko Artzikonea baserriko semea: «Ikas dezatela besteak euskaraz»**

Joxe Joakin Arribilaga Leitzaoko Gorritzaran auzoko Artzikonea baserrian bizi da, herrikan nahiko hurrin Madalena arrebarekin batera. Biak 70 urte- tik gorakoak, irratia izaten dute lagun eta ardi batzuk eta baratza dute, osasunak ez omen die gehiagorako ematen eta.

Beste kasuak bezala eskolan gutxi ibiliak dira edo baterik ez. «Hilabete bat eskolan beste lanean. Orduan ez zen oraingorik. Eta ikasi ginun eskola orduntxe ikasi genuen», dio arrebak. Dena den, oraingo euskaraz kexu dira. «Oraingo euskara gaistoa da ententitzeko. Franko ere jarri gara irratitik

tenak izaten nituen inguruan,

## Gero eta gutxiago

Gero eta cleaniztagoa den gizartean euskaldunek izan duten ohiko bizimoduari ondoen eutsi dioten toki edo gunetan bizi dira euskaldun elebakarrak. Errepide garrantzitsuenetatik urrutixe daude. Iparraldearen barnealdeko udalerrietan, Nafarroaren iparmendebaldeko herrietan, eta Gipuzkoako zein Bizkaiko kostaldeko nahiz barnealdeko udalerriak txikiak izaten dira. Bertan, oraindik orain euskaldun elebakar asko dago, eta euskaraz erdaraz baino errezago hitz egiten duten elebidunak nagusi dira. Euskararen erabilera nagusi dute ohiko erabilera eremuetan, hau da; etxean, etxetik kanpoko gertuko komunitatean, baita lanean lankideekiko harremanetan ere. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroko Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak *Euskararen jarraipena* txostenan 1991an estraleneko kaleratu soziolinguistika datuen arabera, orduan Euskal Herriko biztanleriaren %1 zen euskaldun elebakarra, guztira 23.500, gehienak Gipuzkoan kokatuak. Urte horretan Nafarroan, mugaz bi aldeak hartuz 3.200 euskaldun elebakar ziren. Baina datu horrek nabarmen egin du behera. 1996an *Euskararen jarraipena II* txosteneko ikerketa soziolinguistiko aintzat hartuz, euskaldun elebakarrak zaharrak dira, gehienak 64 urtez goikoak eta desagertzen ari dira. Datuak ikusi besterik ez dago, garaian biztanleriaren %0,5 biltzen euskaldun elebakarra. Beraz, galera nabaria da. Euskaldun elebakarrak 9.800 ziren EAE, 1.100 Nafarroan, eta 1.500 Iparraldean. Nafarroaren kasuan %1 izatetik %0,2ra jaitsi da kopurua.

entzunda baino». Artzikonea baserriko semearen iritzi euskara gero eta gehiago hitz egiten den arren, asko galdu du. «Lehenagoko euskara bezelakorik ez dago, gurea garbia zen eta oraingoa aldrebesagoa da», diosku.

Erosketak herrian bizi diren hilobek egiten dizkiete eta herrira igandeko mezetara bakarrik jaisten da gizona eta Madalena hori ere ez, osasunez nahiko patal dabilelako.

«Herrira jaiera jaisten naiz, igandeko mezetara. Erdaraz ez naiz moldatzen. Bete baserrian egon naiz lanean: behiak, ardiak, belarrean, eta orain ez gara inorako. Medikutara Lizarrara joaten naiz herriko txirindulari batekin eta hark kontaktzen dizkio nire kontuak. Erpea atera zitzaidan eta», azaldu du.

«Aita kamioan ibiltzen zen eta ni eskolan pixka ibilia naiz. Amak galdetzen zion aitari eskolara joan behar nuen eta hark ezetz. Dila istorreta edo arditu». Orduan zaharrak ez baitzuten eskolik eta besteak ere horrela be-

har zutela uste eta gu orain erdaz asko behartu beti eta falta handia somatu dugu. Baina zer egin behar duzu, hementxe pasatu eta kितto», gaineratu du ikuluko atetik sartzen ari den bitartean. Dena den, argi du berak ez baino besteek ikasi behar dutela euskaraz. «Ikas dezatela besteak euskaraz. Etortzen dira ateta erdaldunak eta ez gara hasiko erdaraz ikasten», bukatu du irrifartsu.

► Irene Arrizurieta

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Riberoren azken lanaren harian

Jorge María Riberok ateratako azken lanean dioskun arabera, gizakien sorrera Ebro garaian dago, Tartessos mitikoa zegoen tokian; sinistu ala ez sinistu, dudarik ez dago lan burutsua dela, eta gure apolojistak kalitu genituenetik, ea freskotasan zein imajinaziorik geratzen zaigun pentsatzera eramaten gaitu



**E**Z DA LUZEEGI EBRO GAITZAT hartuta, uhalde berarekin bat egin dagoen Tutera honetako San Adriango markisaren jauretzean erakusketan erraldola ikusgai izan genuenetik. Orduantxe gauza jakina agitu zitzaigun, esku programetan hala agertzen baitzen, erakusketaren sustatzaile ekonomiko zein antolatzailea Zaragozako Ibercaja banketxea zela, era berean, ordea, zeharo ezezaguna igaró zitzaigun erakusketan honetan Jorge María Riberok izan duen eragin handia, izan ere, erakusketan hau ikusgai harat-hunat jarri aurretik, 1991. ean hain zuzen ere, *El río Ebro y los orígenes de Iberia* izenburupeko hitzaldi saila finantziatu zuen esan banketxeak Riberok jaunak antolatutarik, bertan, Jose M. Paredes Grossok, Luis Racionerok eta Fernando Sánchez Dragok hizlari jardun zutelarik. Hitzaldi hauen bitartez, Riberok aprobeixatu nahi izan zuen bere azken aurkikuntzaren berri emateko, hau da, Tartessos mitikoarentzako berak topatu benetako kokapena.

Nor dugu, ordea, Riberok hau? Jorge María Riberok Menezes Valladoliden jaio zen 1945.eko maiatzaren 17an, ber hiriko josulagunen ikastetxean ikasi zuela. Sendiak zuen oihal lantegiak 1960. ean porrot egin zuenean, Bartzelonara jo zuen gurasoekin, non filologia erromanikoko ikasketak bukatu baino lehen Bruselako Unibertsitatara joan zen espainera irakasle; han zegoela, *La Vanguardia* egunkarian hasi zen kolaborazioak argitaratzen. Egunkari honek ateratzen zuen igandekarian, *Una España que hemos de salvar* saila historiko-artistikoa egin zuen, 1977. ean liburu gisa agertu zuena; honen ondorioz ere, Arte en Peligro elkarretea sortu zuen. Francoren heriotzaren ostean espainiar Es-

tatuko Kultura Ministerioan izan zen goi kargudun Pío Cabanillasen laguntzaile. Eraman zuen ibilbidea, aldiz, ez zaigu gehixegi interesatzen harik eta, 1984. ean Penintsulan geratzen diren judutarren aztarnak aztertzen ari zela, gizakia-berriaren sorrera Iberian kokatu beharra dagoela deskubritu zuen arte. Honen harian egin zituen aurkikuntza guztiak 1985. ean agertu *Canthabria cuna de la humanidad* eta *Los orígenes ibéricos de la humanidad* liburu bietan azaldu zituen -Valladolid, Cámara argitaletxean-. Espainian geratzen ziren judutarren aztarna ugariak aztoratuta, orduantxe klarki atzeman zuen gakoa, bada, Titoren agintegokian hasitako diasporan Palestinatik heldu judutarrak ez ziren Penintsulara etortzen, itzultzen baizik, hau da, lehenengo judutarren herrira bueltan zetozen; orduan, Kantabria inguruan Bibliako tokitan zein pertsonaia eta gertaeren aztarnak toponimian jasok badaudela ziurtatu zigen.


Hipotesi hau, aldiz, ikerketa aurrera eramanez, oraino zehaztuagorik ekarri zigun Tartessos Ebro uhaldearekin berdindu zuenean; orduantxe gizakiaren sorrera Ebro garaiko inguruan kokatu zuen laz argitara ateratako *Tartessos versus Ebro: Europa nació en el alto Ebro liburuan* -Bartzelona, Cámara, 1998-. Pentsa daitekeenez, bertan euskarari eman zion garrantzia ez da txikia, areago bere tesi guztiak frogatzeko etimologian oinarritzen baitzen: «*La primitiva y genuina Tartessos estuvo situada en el norte de España, y esto es tanto más cierto cuanto que el vocabulario euskérico viene a ser como un auténtico*

*archivo en el que han quedado registrados todos los pormenores de la epopeya de Tartessos*». Riveroren hipotesia arras berria


gertatzen baizagu, Greziako eta Erromako historialariek penintsulako historialariek eginiko

lana ixilarazi, lapurtu eta haien interesen arabera moldatu zutelako izan zen, izan ere, egungo mendebaldeko kulturaren egiatzko iturriak Kantabria eta Euskal Herrian baitaude.

Ezin uka, hau guztiarekin erabat ados ez egoteko segurtasun osoa ez badugu, bederen mesfidantza nabariaz begiratzen diogun bitartean, nahikoa burutsua badela etimologian oinarriturik eraikitako mitologia osoa. Juaristik eta gure historia urruna zein zergatik ez-geureak ere badiren gure mamu politikokak sustengatzeko helduleku mugatuegiak agian izan diren gure mitologia horiek deuseztatzen ahalegintzen diren bitartean, badira Euskal Herriatik kanpo geure euskara ere ber helburuekin erabiltzeko eragozpen haundirik erakusten ez dutenak, beti ere, espainiar tasunaren goratzearen karietara. Zertan tematu dira berriazko egiaren sasi-argitzaile horiek, demagun, J.R.R. Tolkien baten unibertsoa desmitifikatzeko? Zertan dute, bada, hain okaztagarri, Tubal, Aitor edota abarrik balizko euskal literatura fantastiko berrian, edo haruntzago joanik, Riberok egin duen antzera, itxura zientifikoko balizko entseguko literaturan, nahiz asmo zehatzekin, erabiliko balitz. Askotan pentsatzen da, ez ote garen serioegi, eta ez ote ditugun beroegi egurtu geure betiko apolojistak.



Patziku Perurena



### Bakarrago izaten ikasi

**E**RRETATO ATERATZAILA baten aurrean ipintzen denak, senez edo, bapatean itxura arrotz batera eramaten du bere karantza, perfekzioz apaindu eta osatu nahiz bezala; eta gero erretatoa ikustean, keinu arrotz bat sumatuko du bere aurpegian. Idazleari halako zerbait gertatzen zaio: sekulan ezin aurkitu bere burua tentuz bere idatzietan.

Baina, bapateko argazkian ez bezala, idazlan batean, ezinezko da etengabeko disimulua, gorderik nahi zuen pasarte hartantxe azaltzen baitzaizkio bati bere ezinak eta makurrak nabarmenen. Baina, gizonak bere burua maizegi ikusten duenean, ahaztu egiten du zein duen bere zinezko kara eta zein maskara. Taigabe giza tratuan, prentsan, dabiltzaneren karak ikustea eta hitzak entzutea aski. Deusek bada eta, bere buruaz beste egindako guziak, ematen baitio gizakiari bere neurri modernoak.

Gezurra da noski gizonak asmatu duen gauzarik beharrena. Jendea gezur gabetzeko botikarik asmatuko balu medizinarik, akabo gure haunditasun uste guziak! Zerria labana sartu eta odolustutzen denean bezalaxe geldituko ginake. Egia berezko da, gezurra asmatu izanak egiten gaitu gizon. Ni, astozar hau, berandu hasi naiz ikasten.

Behar bezain zuhur eta argi bagina, gezurra bilatuko genuke beti, egiaren zamarik ezagutzen ez duen haurren gisan. Ez dugu hala egiten ordea. Haundinahi zozoren batek saihesten ote gaitu, agian, hain beharrezko genuen gezur eder horretatik? Edo bestela, zergatik uste izaten dugu gizajook, egiak gizonago egiten gaituela? Zergatik botatzen dugu gezurra beti beste aldera, arerioen aldera? Zertako balio izan digute beren gezurra iraultzen ez dakiten iraultzaile gizajo horiek?...

Esaiozu gizon bati, bere lagunik minenari zorigaitz ikaragarria gertatu zaiola, eta bapatean eta bera oharkabean halako alaitasun gisako batek korrituko dio gorputz guzia. Berak ez du hala uste, baina,

bere barrenak badaki atsegin duela. Handik aurrera gizon horrek dituen eta ez dituen guziak emanen ditu lagun min horren alde, baina, horrek guziak ez dio galaziko hasierako hotzikara gisako hura, gorputz guzitik pasa zaion atsegin gisako dardarizo hura.

Gizonaren gaiztotasun gorde honek oraindik izenik ez badu, psikologia zinezko giza aztarnen gainean baino areago hitzen gainean eraiki delako da. Moralak ez du gaiztotasun horren berririk, epaileak ekintzak bakarrik juzkatzen baititu; erlijioak, ordea, intentzioak ere epaitu nahi litzuzke; eta psikologiak, erlijio berri honek, intentzio sortzaile diren giza aztarna horiek ere aztertu egin beharko litzuzke. Nondik sortzen da gizonaren gaiztotasun gorde hori? Errailetan dakarren birus zaharren bat ote du?

Begira. Bi urte eskaseko haurrak, armarioa jotzen badu kunka! buruarekin, «ale! tta tta tta!» dundurikatuz ekinen dio atzera bere eskutxo inozentez, kulpa armario gaiztoak balu bezala. Nola ikasi du haur horrek egia gezurretara iraultzen, onari gaiztoka mendeku ttiki horiek egiten? Birusa genetan ote dakar? Harritzen naiz! Inor aurrean duenean eginen baitizu batipat hori; bakarrik bada, kaskatekoa isilean igurtziz onartuko dizu bere deskuidoa, eta ez dizu ez gezur ttiki asmatu beharrik eta mendeku ttiki egin beharrik sentituko.

Esanda ezin sines liteke, gizarreak nola hondatzen duen jendea. Joanesen pasarte hura datorkit gogora:

*Han gelditu ziren ene begiak sabai azpiko arma arma sareetan.*

*Han bete nuen armarioa miruluma eta hartxuriz urkiostu eta muxika hezurrez. Han hozkatu lehenbizikotz laztantzen nituen erleek, ihes egin eskura nahi nituen larraixori izukorrek, Han ikasi oro amoltsuki maitatuz bakarrago izaten.*

Eta geroztik, ibili eta buelta, ez dut sumatzen beste biderik.

### Ziria

• Motxorrosolo •

#### Argazkien bilduma

**G**AINERAKOEN MOLDEAK BEREGANATZEN HASIZ GERO, ARGAZKIEN bilduma azken urratsa bada hobe. Irudiak ederragoak baitira edukiz beterik daudenean. Golem mamutzarrak janen al gaitu?

# Jose Antonio Gabilondo

San Fermin ikastolako zuzendaria

## «Jarraipen naturala bete besterik ez genuen egin»

**Hogei urte joan dira Nafarroako irakaskuntzan euskaraz lehenengo batxilergoa ezarri zenetik. Iruñeko San Fermin ikastola izan zen aitzindaria, eta, Jose Antonio Gabilondo zuzendariak dioenez, guraso eta ikasleek eskatzen zuten jarraipen naturala bete besterik ez zuten egin.**

**B**ILERA BATETIK BESTERAKO TARTEAN harrapatu dugu Gabilondo. Luze aritu da ikastolaz, ez baititu alferrik bete hemeretzi urte bertan lanean.

■ **Zuek izan zineten Nafarroan euskaraz batxilergoa ezarri zenuten lehen ikastetxea. Hogei urte iragan dira geroztik. Horrek zer suposatu zuen garaian?**

1978-79 ikasturtean ezarri zen lehenengo batxilergoa euskaraz Nafarroan. Jarraipen naturala bete besterik ez genuen egin. Bianako Printzea Institutuan ofizialtasunik gabeko urte bat eman eta gero lehenengo zikloa eta bigarrena etorri ziren. 90-91n erabaki genuen UBI jartzea eta ikasketa ez unibertsitarioen ziklo osoa ematea: hiru urterekin hasi eta hemezortzirekin bukatu. Talde polit batekin hasi ginen, hogei hamar bat edo. Garai hartako zortzigarren maila nahiko sendoa zen eta ikastola nahiko handia zen.

■ **Zer traba gainditu behar izan zenituzten?**

Batez ere materialik eza eta irakasle falta. Tituludun euskaldunak orduan ateratzen ari ziren unibertsitateetatik baina gutxi ziren eta bilatu egin behar ziren. Handik etorritako jendea izan zen gehienbat. Jende gaztea zen askotan eta hori guztia hemen txertatzen joatea izan zen egin genuen beste lan handia.

■ **Arazaok arazo, urteotako la-**

**naren balorazioa ona izanena da, ezta?**


Erabat baikorra da. Izan ere, garbi daukagu garai hartan ez balira pauso haiek eman, gaur egun bost edo hamar urte atzeratuagoak egongo ginatekeela. Garai hartan ez zegoen beste aukerarik euskaraz ikasketak jarraitzeko. Bide hori zabaldu genuen eta gero beste batzuek jarraitu egin dute. Horri gehitu behar zaio ikasleak emaitza oso onak ematen ari direla. Honekin jendearengan zeuden zenbait ideia oker berehala deuseztatu

egin dira, ikusten dutelako hemezortzi urte arte ikastola batean ikasita gero primeran ateratzen dutela edozein unibertsitateetako karrera eta oso ongi sartzen direla lan munduan.

■ **Beraz, etorkizuna elebiduna da?**

Etorkina eleanitza izango da. Uste dut inork ere zalantzan ezin duela jarri, eta jartzen dutenak izaten dira beste intentzio batzuekin beste zerbait lortu nahi dutelako, baina ez benetan hori pentsatzen dutelako. Garbi dago aberastasun bat dela

eta ikastoletan martxan jarri genuen bide honek egin duen bakarra izan da guran konfiantza izan duen jendea aberastu eta askatasun hori eman. Askatasuna eman euskaraz bizitzeko edo erdaraz bizitzeko. Gainontzekoek eman ezin dutena. Logika batekin pentsatuz iritsi behar zuena baino beranduago etorri



● MIKEL SAIZ

### soslaia

Jose Antonio Gabilondo zarauzitarra da jaiotzez, eta duela hemeretzi urte etorri zen Iruñera. San Fermin ikastolan lan egitera. Soinketa irakasle gisa hasi zen, eta Oinarizko Hezkuntza Orokorrean matematikak eta natur zientziak ere irakatsi zituen. Orain dela lau urte da 1.400 ikasle dituen ikastola horretako zuzendaria.

Zizur Txikiko ikastolak eguneko ordu gehientsuenak kentzen omen dizkio, eta aisialdirako beta gutxi du Gabilondok. Dena den, asteburuetan eta udan jaioterrira joaten da, itsasoko uraz eta eguzkiak gozatzeko. Bestalde, ibiltari amorratua denez, Iruñeritik barna asko ibiltzen omen da.

Egunotan bileraz biler aabil, egunerokoaz gain biharko ekitaldia prestatzen ari baitira. Ikastolaren birmoldaketa hasiko dute ofizialki, LOGSE edo Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legera egokitzeke. Horrela, Nafarroan 3 urtetik 18ra bitarteko irakaskuntza eskaintzen duen lehen ikastola izanen da.

denek. Orduan, hortik jo behar dugu. Nafarroako Gobernuari berari ez bazaio irteten euskara bultzatzeko eta hobetzeko idearik eta bideak urratzeko gogorik, eskatuko diogu laguntzeko eta egiten ari garenoi oztoporik ez jartzeko.

■ **Lehen aipatu dituzu mamuak. Oraindik euskararen inguruan badaudela uste duzu?**

Oraindik mamuez hitz egin daiteke baina orain dela hogei urte ez ziren mamuak, baizik eta benetako beldurrak. Euskaraz ikastea txarra eta kaltegarria ze-

lako oso zabaldua zegoen, eta esan egiten zuten inolako lotsarik gabe. Guk garbi genuen egiten ari ginen lana ondo zegoela, eta gaur egun hori frogatua dago. Egunduz esan zabaldua dagoen iritzia denik, baina zenbait burutan dagoen mamua da. Horiek dira zenbait sektore oso interesatutatik jasotzen diren mezuak eta bere helburu bakarra da zalantzak eta ezinegona sortzea. Baina mamuak mamu direnez, desagertu egingo dira lanean bide egokitik jarraitzen badugu.

→ Irene Arrizurieta



## Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

### A ereduaren gain

**D**eredua alde honetako bi hizkuntzak jakiteko bide bakarra da. Horixe da sarri hasiko den aurrematrikulazio garaian zabaldu beharko litzatekeen mezu nagusia. Gaur egun, gero eta lehia handiagoa dago ikastetxeen artean haurrak hartzeko, euskararen gaineko mezu ofizialek ez ditugute onik egiten eta haurren kopurua mugatua da. Beraz, bide bat bertzerik ez dago haurrak euskal mundura erakartzeko, hots, modu erakargarrian jokatu behar da, euskal ereduari buruzko zalantzak eta kezak dituztenen buruak lasaitzeko eta argitzeko. Iragan abenduaren 26an Sadarren egon zenak seme-alabak D eredura eramanen ditu. Hori konbentziturik dago. Kontua da zer nolako mezua eta nola bota behar den Sadarren egon ez zena konbentzitzeko. Eta mezu horiek hemen sortu behar dira, Nafarroan. Gauza jakina baita A ereduak ez duela balio haurrak euskalduntzeko, baina Nafarroako toki aunitzetan eredu hori baizik ez dute aukeran gaztelera huteskoarekin batera. Hortaz, inork uste baldin badu A ereduaren aurkako hitz gogorren bitartez, aitzinera joko dugula, jai dugu, eta bertze gisa, ederki gaude inork uste baldin badu gaztelaren aurkako borroka latzean euskara garaile aterako dela. Bertzeak baino gutxiago gara, komunikabideak ez daude gure esku, agerikoa da Nafarroako sektore frankok euskarari agertzen dioten etsaigoa eta botereguneek aukeratu duten bidea euskara geldi gabeko istilu gorriari lotzeko. Horrenbertzez, erdaltzaleak baino azkarago ekin behar zaio, txukunago, burua erabili beharra dago, mamuak uxatu, -eta euskal mundutik mamurik ez sortu-, gerra mezuak saihestu, eta gonbite egin euskararen inolako harremanik izan ez duten gizartekide nahiz talde guztiei euskararen mundua ezagutzeko, eta gogorarazi behar zaie euskara hautatzeak ez dakarrela gaztelaren ukazioa. Gure esku dago.

### KONTZERTUAK

- **Lesaka:** Amaia Zubiriaren kontzertua izanen da gaur frontoian, 22:30etan. Abeslariak *Hou pitx houl* azken diskoa aurkeztuko du.
- **Iruñea:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean Gayarre antzokian, 20:00etan.
- **Arantza:** Joxe Ripiauk kontzertua eskainiko du bihar, 24:00etan, frontoian.
- **Gares:** Latzen taldeak kontzertua emanen du datorren asteazkenean 23:00etan, Gares aretoan.

### ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri Elkarteak antolatuta, zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur *Behiak* pelikula pantailaratuko da, 20:00etan. Aurretik *Txotx* film laburra eskainiko dute.

### ANTZERKIA

- **Iruñea:** *Hemengo Antzerkia* zikloaren barruan Pabellon taldeak *Locas de amar* lana antzeztuko du gaur. Bihar lekukoa Zarrapastra taldeak hartuko du, eta *Historias de nadie* emango du. Asteartean, berriz, Kollins Clown taldeak *Txitxirio eta txanogorritxo* eskainiko du, eta hurrengo egunean Mamarro taldeak *Leyendas del bosque* antzeztuko du. Zikloa Xautondo taldeak datorren ostegunean emanen duen *Los peces rojos* lanarekin bukatuko da. Emanaldi guztiak Erraldoien Txokoan izanen dira, 20:00etan.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** *Iruñeko toponimia. Batzordearen lana* solasaldia eskainiko dute datorren asteazkenean Mikel Belaskok eta

Iñaki Azkonak Zaldiko Maldiko elkartean, 20:00etan.

- **Zaraitzu:** Zaraitzu, Eaurta eta Abaurregaina artean, Remendia parajeen, Basoa proiektuaren lehen landaketak egingen dira gaur. Barañingo Alaitz eskolako 450 ikaslek geletan hazitako Nafarroako zuhaitzak landatuko dituzte eskolaz eskola in-

gurugiroa zaintzeko egitasmoaren baitan.


- **Iruñea:** VI. Lilaketa egingen da etzi, Martxoaren 8a Batzordeak antolatuta. Lasterketa 12:00etan aterako da Gazteluko plazatik. Izena egun berean 10:00etatik aitzina eman daiteke.
- **Iruñea:** Jose Luis Garai txistulariaren omenez euskarazko

meza izanen da bihar Jesuiten egoitzan, 18:45etan.

- **Arbizu:** Patziku Perurenak *Koloreak euskal usarioan* hitzaldia eskainiko du gaur udal-etxean, 21:00etan.
- **Iruñea:** Jose Javier Lopezek *Arturo Campion entre historia y literatura, 1854-1937* hitzaldia emango du gaur Nabarrera Kultur Zentroan, 19:30etan.

## Arestiren liburutegia

Castelao nos



—Non son pastores de Belén: son labregos que van a pagar los foros.

**Betlehemeko artzainak ez dituk; zeroak pagatzera doazen nekazariak dituk.**